



# ALTSASU



## ERAIKINAK ZAHARBERRITZEKO LAGUNTZAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA BERRIA

**E** Altsasuko Udaleko Udaltzarak Interbentzio Globalerako Plana duten lehentasunezko zaharberitze guneetan dauden eraikinak zaharberitzeko laguntzak arautzen dituen Ordenantza onartu du. Etxebizitzaren kalitatea hobetzea gure jendearen bizi kalitatea hobetzea da.

Jabe komunitateek euren etxebizitza eraikinetan ingurutzailerako termikoan zaharberitze ekimenak burutu dituzten sustatzea du helburu Altsasuko Udalak. Ekintza hauek eraikinen eraginkortasun energetikoaren hobekuntza argi eta nabarmena dakarte, eraikinen kanpoko itxuran dakarren

hobekuntza ahaztu gabe.

Horrela, eraikinen ingurutzailerako termikoan ekintzak burutu daitezten sustatzeko Altsasuko Udalak duen helburuarekin, bai eta horrekin batera arkitektura hesiak deuseztatzeko ere, Udaleko Udaltzarak Interbentzio Globalerako Plana duten lehentasunezko zaharberitze guneetan dauden eraikinak zaharberitzeko laguntzak arautzen dituen Ordenantzaren testua onartu du.

Ordenantza honek ondoko ekintzak burutzeko Altsasuko Udalak emango dituen laguntzak arautzen ditu:

a) Eraikinen ingurutzailerako oso-

tasunean ekintzak, eraginkortasun energetikoa hobetzeko.

b) Eraikinen ingurutzailerako oso-tasunean ekintzak, eraginkortasun energetikoa hobetzeko, arkitektura hesien deuseztapenarekin konbinatuz.

Aipatutako laguntzekin batera nabarmendu beharra dugu zaharberitze behar den eraikin baten lehentasunezko zaharberitze gune batean eta dagokion Interbentzio Globalerako Planean sartzearekin, mota honetako ekintzetarako Nafarroako Gobernuak ematen duen diru-laguntza %40tik %50era igotzen dela.



Oso garrantzitsua da gogoraraztea udal laguntzak jasotzeko aukera etxebizitza erabilera duten eraikin guztiek izango dutela, ordenaziotik kanpo ez badaude, Altsasuko Udalak Interbentzio Globalerako Plan baten bitartez ezarriko duen lehentasunezko zaharberitze gunean kokaturik badaude, zehaztutako bi zaharberitze ekintzak egin behar badituzte eta Nafarroako Gobernuaren aldetik babestutako zaharberitzerako kalifikazioa lortu badute. Aipatutako Interbentzio Globalerako Plana Altsasuko Udalak onartuko du, eraikinen ezaugarri berezengatik lehentasunezko zaharberitzerako gune batean sartuak izan diren etxebizitza eraikin gune bakoitzerako.









